

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekin izango dugun harremana pertsonala izango da; hau da, zerbitzu pertsonalizatua eskainiko dugu. Aurrez aurre egongo gara beraiekin, bai jabetxean, bai haurtzaindegi zerbitzuan nahiz produktuen salmentan.

Tailerretan arreta berezia eta espezifikoa emango diegu gure bezeroei. Autokarabana Parking-a erabili nahi dutenentzat berriz, laguntza pertsonalizatua eskaini arren, on-line zerbitzua ere izango dugu (Instagram, Twitter eta Facebooken bitartez), erreserbak egin ahal izango dituzte eta azalpen bideoetara jotzeko aukera izango dute elektrizitate kargak eta bestelakoak nola egiten diren ikasteko.

